



## JESUSEN LURRALDEA

Gaur Ain Karin izeneko herrialdean egingo dugu geldialdia.

**Ain Karin**, "Mahastiaren iturria" bezala itzultzen dena, Jerusalemdik gertu dagoen herri txiki bat da, hiri berriaren mendebaldean eta Jaffako Atetik 6 kilometro ingurura dago.

Herri honetan, tradizioak San Lucaseko ebanjelioan kontatutako bi gertaera ekarri ditu gogora: Maria bere lehengusina Elisabeti egindako bisita eta Joan Bataiatzailearen jaiotza.

Hain zuzen ere, Ama Birjinaren bisita izan zen herrixkako eliza nagusiari izena eman ziona.

## AIN KARIN:

Bibliako pasartea → Lucas 1, 39 - 56

PASARTEA BIDEOAN:



### **GALDERAK:**

Nola zuen izena Isabel lehengusinaren senarrak?

Zer esan zion Isabelek Mariari bere agurra entzutean?

Noiz ospatzen dugu Mariak bere lehengusinari egindako bisitaren jaia?

### **BIDEOA (AIN KARIN GAUR EGUN):**

### **AIN KARIN ARTELANETAN:**



Rafael Sanzio-ren margolana  
"Mariaren bisita, Santa Isabel lehengusinari"

